

42 » Balerdi, Tapies eta beste hiru artistaren lanak zaharberitu ditu Bilboko Arte Eder museoak

44 » Oliveirak 100 urte bete ditu, 'Singularidades de uma rapariga loira' filmatzen ari den bitartean

Lazarragari buruzko jardunaldiak Artiumen → Lazarraga eta literatura

Bere garaiari atxikitako idazlea

Lazarragak bere garaiko literaturarekin izan zuen harremana aztertu dute Iñaki Aldekoak eta Julen Arriolabengoak

Juan Luis Zabala

Hala bere obran nola bere gustuetan, oso bere garaiko idazlea izan zen Lazarraga, bere garaiari eta bere garaiko literaturari estu atxikia, Iñaki Aldekoak eta Julen Arriolabengoak atzo, Gasteizko Artium museoan egin diren *Lazarraga, arabar poeta* jardunaldien azkeneko egunean, eman zituzten hitzaldien arabera bederen. Bernardo Atxagak aurkeztu eta gidatu zuen solasaldia.

Gaur egun guretzat oso ezagunak diren XVI edo XVII. mendeko idazle askok ez zutela bizi ziren artean libururik argitaratu gogoratu zuen bere hitzaldiaren hasieran Iñaki Aldekoa literatur irakasle eta kritikariak. «Garai hartan idazle gutxi batzuek baino ez zuten lortzen argitaratzea. Liburu ordez, plegu solteak eta eskuizkribuak ibiltzen ziren eskuz esku. Horregatik, argitaratutako liburuei soilik begiratuz gero, ez dago garai haren azalpena emateko modurik».

Nahiz eta libururik ez argitaratu, Lazarraga *poeta* gisa ezaguna zen bere garaian. Lazarraga poetatzat jotzea ez zen, dena den, Aldekoaren ustez, poesia idatzi izanaren ondorio, garai hartan, artean *humanista* hitza asmatu gabe zegoelarik, kronika historikoen eta genealogien idazleei *poeta* deitzen zieten baizik.

Irudia » Gasteiz



LAZARRAGAREN OBRA, TAULA GAINEAN

Ortzai antzerki taldeak *Maitasunaren saltsan* obra estreinatu zuen atzo, Gasteizko Artium museoan, Lazarragari buruzko jardunaldien barruan. Lazarragak idatzitako artzain nobela du oinarri

«Niresusmoa da XVI. mendean poesia ez zela artean ere ohorezko genero gorena», dio Aldekoak. «Ez dut erabateko ziurtasunez baieztatzen, baina uste dut Lazarragak, garaia halakoxea zelako, arreta handiagoa jarri zuela bere kronika historikoetan, genealogietan eta gisako lanetan, bere lan poetikoetan baino». Lazarragak gaztelaniaz idatzi zituen kronika historikoak; euskaraz poemak. Espainiako literatura izan zuen

iturri eta eragin nagusi Lazarragak, Aldekoaren ustez. «Lazarragaren eskuizkribuak XVI. mendean osoan Espainiako literaturan erabat modan egon ziren joera guztiak islatzen eta biltzen ditu». Berzitasun nabarmen batekin, jakina: euskaraz ere idatzi zuela.

Noblezia erregeen gero eta menperago geratu ahala, zaldunen nobela apurka-apurka artzain nobela bilakatzen joan zen Lazarragaren garaian, «harik eta

Ortzairaren obrak, nahiz eta gertakariak XX. mendeko apartamentu batean kokatzen dituen. Lau pertsonaiaren arteko amodio arazoak dira obraren ardatza. EDORTA SANZ / GEUGASTEIZ

erabat gorteko bilakatu arte». Lazarragaren lanak joera horren barruan kokatzen dira bete-betean, eta Lazarragak bere lanetan txertatzen dituen kantak eta alegiak

ere oso bere garaikoak dira, garai bereko beste egile askok antzeko moduan erabiliak.

Kantu zaharra, narrazio modu
Euskara Ibarquen-Cachopin kronikan (BBK-Euskaltzaindia, 2008) saiakerarekin 2007ko Mikel Zarate saria irabazi zuen Julen Arriolabengoak. Atzo Artiumen egin zuen hitzaldian, *Ibarquen-*



Lazarragaren lanak XVI. mendean Espainiako literaturan modako ziren joerak islatzen ditu»

IÑAKI ALDEKOA
Literatur irakasle eta kritikaria

«Arbuiatua bada ere, kantu zaharra narrazio modu bat da, genero historiografiko bat»

JULEN ARRIOLABENGOA
Ikertaria eta idazlea

Cachopin kronika-ko kantu zahar bat aztertu zuen: *Rodrigo Zarateko*. Frogatzerik ez badago ere, Arriolabengoak uste du Lazarragak ezagutu behar zuela kantu hori, beste asko bezala.

Ibarquen-Cachopin kronika-n kantu zahar ugari ageri da; eta Lazarragak egin zuen genealogian ere bada kantu zahar bat. «Hori ez da kasualitatea», Arriolabengoaren ustez. «Nahiz eta duen balio historiografikoa arbuiatzeko joera dagoen, kantu zaharra narrazio modu bat da, genero historiografiko bat».

Erosi berrian Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

SOLAGÜEN 2004. urteko ardo ONDUA



12 botilako kutxa
72€

REMELLURI 2004. urteko ERRESERBAKO ardoa



3 botilako kutxa
40€
6 botilako kutxa
80€

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Lotea **29€**

Tolosako Xaxuak
Txakolin txokolata
Jogurt turroia masusta gorriarekin
Aktikoa eta mertxika turroia



Mandarina turroia boilur zuriarekin
Txokolate turroia almendrek
Mertxika turroia txokolatearekin
Jogurt turroia masusta gorriarekin



Turroi askotarikoak
19,50€

Alfar
OLIBA OLIO BIRJINA ESTRA
6 botilako kutxa (75 cl)
36€



Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura:
Zure etxera • Oparitu nahi diozun lagunaren etxera edo lantokira...

Eskaera epea: abenduaren 12a arte

Eskaerak egiteko:
943-30 43 45
Bidalketa gasturik gabe



Amilami
LAMINEN TRADIZIOA ABENTURA BIHURTURIK!
Juan Kruz Igerabide + Elena Odriozola

Amilami
Laminen historia
Juan Kruz Igerabide
Marrazkilea: Elena Odriozola

elkar www.elkargialetxea.com